

Fiskalizazio Txostena
Informe de Fiscalización

Santa María Katedrala
Fundazioa - Fundación Catedral
de Santa Maríari emandako
Funts Publikoak

Fondos Públicos aportados a
Santa María Katedrala
Fundazioa - Fundación Catedral
de Santa María

1999 - 2003



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas





AURKIBIDEA / ÍNDICE

I. SARRERA	5
I.1 Fundazioaren eraketa eta helburuak	5
II. ONDORIOAK	7
II.1 Fundazioari emandako Funtz Publikoak eta horien legezkotasunari buruzko azterketa.....	7
II.2 2 Jasotako funtsen xedea eta Plan Gidatzailea.....	7
II.3 Fundazioaren jardueren legezkotasuna	10
III. AKATSAK ETA GOMENDIOAK	12
IV. PARAGRAFO ARGITZAILEAK.....	13
IV.1 Fundazioa eratu aurreko jarduerak	13
IV.2 Araudi aplikagarria	13
IV.3 Finantziazioa.....	14
IV.3.1 Arabako Foru Aldundiaren ekarpenak	15
IV.3.2 Vitoria-Gasteizko Udalaren ekarpenak.....	17
IV.3.3 Eusko Jurlaritzaren ekarpenak	17
IV.3.4 Beste zenbait finantziazio.....	18
IV.4 Fundazioaren jarduerak	19
IV.4.1 Ibilgetuaren gehikuntza	19
IV.4.2 Fundazioaren beste zenbait jarduera	21
IV.5 Langileak	22
IV.6 Kontratazioa	23
IV.7 1999tik 2003ra bitarteko ekitaldietako kontuak	26
BOTO PARTIKULARRA	60



I. INTRODUCCIÓN	29
I.1 Constitución y fines	29
II. CONCLUSIONES.....	31
II.1 Fondos Públicos aportados a la Fundación y análisis de su legalidad ..	31
II.2 Destino de los Fondos recibidos y Plan Director	31
II.3 Legalidad actuaciones de la Fundación.....	34
III. DEFICIENCIAS Y RECOMENDACIONES.....	35
IV. APARTADOS EXPLICATIVOS.....	37
IV.1 Actuaciones previas a la constitución de la Fundación.....	37
IV.2 Normativa aplicable	37
IV.3 Financiación.....	38
IV.3.1 Aportaciones de DFA	39
IV.3.2 Aportaciones del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz	41
IV.3.3 Aportaciones del Gobierno Vasco.....	41
IV.3.4 Otra financiación	42
IV.4 Actuaciones de la Fundación	43
IV.4.1 Aumento de inmovilizado	43
IV.4.2 Otras actividades de la Fundación.....	45
IV.5 Personal.....	46
IV.6 Contratación	47
IV.7 Cuentas de los ejercicios 1999 a 2003	50
ALEGACIONES	53
VOTO PARTICULAR	62

Vitoria-Gasteiz, 2006ko martxoaren 23a
Vitoria-Gasteiz, a 23 de marzo de 2006

I. SARRERA

Santa María Katedrala Fundazioa-Fundación Catedral de Santa Mariari (aurrerantzean, Fundazioa) emandako Funts Publikoei buruzko txosten hau Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren 1/1988 Legearekin bat etorrita egin da eta, Arabako Biltzar Nagusiek hala eskatuta, 2004ko ekainetik 2005eko maiatzera bitarteko Urteko Lan Programaren barruan sartuta dago. 1999an Fundazioa sortu zenetik 2003ko abenduaren 31ra bitarteko epea fiskalizatu da.

Honako lana egin da:

- Euskal Sektore Publikoak Fundazioari eman dizkion diru-laguntzen zenbatekoa lortu da.
- Administrazioek laguntzak emateko eta ordaintzeko zein prozedura erabili duten aztertu da.
- Funts Publikoak zertarako erabili diren aztertu da: zein diren diruz lagundutako jarduerak, jarduera horiek egiteko arrazoiak eta jardueren kostua.
- Administrazioak finantzatu eta kontrolatzen duen erakundea denez, Fundazioaren jarduerak bete beharreko printzipioak zenbateraino bete diren aztertu da: obrak, ondasunak eta zerbitzuak kontratatzerakoan, publikotasun eta lehiaketa printzipioa, eta langileak kontratatzerakoan, berdintasun, meritu eta gaitasun printzipioak.

Honako lau hau egiteko, informazioa eskatu eta agiri euskarriak aztertu dira, bai laguntzak eman dituztenenak bai eta Fundazioarenak ere. Aztertu egin dira Euskal Herriko Fundazioen Babesletzari aurkeztutako oroit-txostenen eta urteko kontuen edukiak eta Fundazioaren kanpo-auditoriko txostenak, nahitaezkoak Fundazioaren estatutueta 36. artikulua araberak.

I.1 ERAKETA ETA HELBURUAK

Gasteizko Elizbarrutiaren Gotzaindegiak (Katedralaren eta Katedralaren aldameneko zenbait eraikinen jabea), Arabako Foru Aldundiak (AFA) eta Vitoria-Gasteizko Udalak, 1999ko maiatzaren 25eko eskritura publiko bidez, Fundazioa eratu zuten. 1999ko urriaren 28an, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailburuaren Agindu bidez, Euskal Herriko Fundazioen Erregistroan inskribatu eta berezko lege-nortasuna hartu zuen Fundazioak.

Hasierako ondare-zuzkidura 30 mila eurokoa izan zen eta, Fundazioa eratu zenean, bazkide sortzaileek ordaindu zuten oso-osorik:

Erakundea	Mila €
Arabako Foru Aldundia.....	12
Vitoria-Gasteizko Udala	12
Gasteizko Gotzaindegia	6
GUZTIRA	30



1999ko maiatzaren 25eko Diputatuen Kontseiluan erabaki zen Arabako Foru Aldundiak Fundazioaren eraketan parte hartzea eta, 1999ko maiatzaren 24ko Osoko Bilkura Arruntan, berriz, Udalaren partaidetza.

Fundazioaren helburu orokorra eta interes nagusia da Vitoria-Gasteizko Santa Maria Katedrala eta bere hiri-ingurunea erabat sendotzen, zaharberritzen eta birgaitzen laguntzea, horretarako egindako Plan Gidatzailearen jarraibideak garatuz. Horrezaz gain, indarrean den bitartean, bere gain hartuko du Katedralaren eta bere inguruaren erlijio mailakoa ez den kudeaketa.

Helburu horiek bete ahal izateko, besteak beste honako jarduerak garatuko ditu Fundazioak:

- Plan Gidatzailea onartzea eta garatzea.
- Dagokion Finantziario-planaren arabera, programak, egutegiak eta esku-hartzeak onartzea.
- Esku-hartzeetarako beharrezko diren exekuzio, obra eta lanetako proiektuetan, kontratazioa, proiektuon jarraipena eta kontrola egitea.
- Esku-hartzeetan beharrezko diren obra eta lanen finantziarioa.
- Fundazioaren xedea bete ahal izateko, Patronatuak egin beharrekotzat jotako gainerako ekintza guztiak eta, bereziki, Fundazioaren helburuaren eta xedeen berri emateko ekintza guztiak.

Gotzaindegiarena da Katedrala. 2000ko uztailaren 19an, Katedrala eta bere aldameneko eraikinak erabiltzeko eta harekin gozatzeko eskubidea Gotzaindegiak Fundazioari lagatzeko akordioa sinatu zen, zaharberritzeko Plan Gidatzailea garatuz, Fundazioak askatasun osoz egin ahal zitzan eraikin horiek guztiak erabat sendotzeko, zaharberritzeko eta birgaitzeko lanak. Obren programazioaren arabera, lagapenak 10 urte iraungo ditu.

Eratu zenetik 2003ko abenduaren 31ra arte, Fundazioak bere helburuak lortzeko lortutako finantziarioa honakoa izan da:

	Mila €	%
Euskal Sektore Publikoaren ekarpenak	8.249	%74,2
Kultura Ministerioa	402	%3,6
Beste zenbait diru-sarrera.....	2.468	%22,2
GUZTIRA	11.119	%100,0



II. ONDORIOAK

II.1 FUNDAZIOARI EMANDAKO FUNTS PUBLIKOAK ETA HORIEN LEGEKOTASUNARI BURUZKO AZTERKETA

Fundazioak bere jarduera garatzeko erakunde publikoekiko mendekotasun handia du, batez ere, AFA eta Vitoria-Gasteizko Udalarekiko; izan ere, bi erakunde horietatik jasotako ekarpen eta diru-laguntzek finantzatuta dago gehienbat (aztertutako epean, finantziazioaren %78).

Hona hemen erakunde publikoen ekarpenak, erakundeka eta urteka zehaztuta:

	1999	2000	2001	2002	2003	Guztira Urte anitzek.	Mila €
FUNDAZIOAREN ZUZKIDURA	24	-	-	-	-	24	-
Arabako Foru Aldundia	12	-	-	-	-	12	-
Vitoria-Gasteizko Udala	12	-	-	-	-	12	-
BESTE ZENBAIT EKARPEN	817	1.783	1.788	1.926	1.911	8.225	-
A.F.A. Hasierako konpromisoa	48	781	781	781	782	3.173	4.688
A.F.A. Gainerako ekarpenak	-	221	199	346	334	1.100	-
Vitoria-Gasteizko Udala	589	601	601	601	601	2.993	3.005
Eusko Jaurlaritza	180	180	207	198	194	959	-
EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN EKARPEN. GUZTIRA	841	1.783	1.788	1.926	1.911	8.249	7.693
Kultura Ministerioaren diru-laguntzak	-	-	168	150	84	402	-
ERAKUNDE PUBLIKOEN EKARPENAK GUZTIRA	841	1.783	1.956	2.076	1.995	8.651	7.693

Nabarmenak dira bazkide sortzaileen ekarpenak, AFARENak eta Vitoria-Gasteizko Udalarenak, alegia, ekarpen publiko guztien %49,4 eta %34,6 eman baitute hurrenez hurren.

Diruz lagundu nahi izan den jardueraren berezitasuna dela-eta, administrazio publikoetako aurrekontuetan, batez ere diru-laguntza izendun modura esleitu dituzte laguntza horiek.

AFAk, Vitoria-Gasteizko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntzak aztertu ditugu, guztira 7.622 mila euro (emandako laguntzetatik %92,4) eta indarrean dagoen araudiaren arabera eman direla egiaztatu dugu.

II.2 JASOTAKO FUNTSEN XEDEA ETA PLAN GIDATZAILEA

Fundazioaren sortzaileek, hots, AFAk, Vitoria-Gasteizko Udalak eta Gasteizko Gotzaindegiak egin dituzten ekarpenak Plan Gidatzailearen jardueretara bideratu dira. Fundazioak, halaber, kopuru txikiagoko diru-laguntzak jaso ditu AFAtik, erakunde publiko batzuetatik eta beste zenbait entitatetatik, jarduera jakin batzuk egiteko. Beraz, Fundazioak jaso dituen funts publiko eta pribatuen xedea bateratua denez, ezin da jakin inbertsio eta gastuen zein zati finantzatu den funts publikoekin eta zein zati gainerako ekarpenekin.



Katedralaren Plan Gidatzailearen helburuen artean dago Katedrala zaharberritzeaz gain, kultur ekintzen plan bat definitzea eta abian jartzea, planean jasotako proposamenetara sarbidea izan dezaten herritarrek eta zaharberrikuntza-proiektua hedatu ahal izateko. Bi jarduera horietan jasotako funtsak erabili ditu Fundazioak; 2003ko abenduaren 31n eratu zenetik, hona hemen inbertsio eta gastuak zehaztuta:

	Mila €	%
Ibilgetuaren gehikuntza	5.380	%56,0
Zaharberritzeko eta birgaitzeko obrak	4.403	%45,8
Aiztogile kalean eraikinak erostea	612	%6,4
Beste ibilgetu bat	365	%3,8
Gastuak	4.224	%44,0
Langileak	1.060	%11,0
Bisitaldi gidatuen Programa	1.720	%17,9
Beste zenbait gastu	1.444	%15,1
GUZTIRA	9.604	%100,0

Abenduaren 31n, Fundazioak erakunde publiko eta pribatuetatik kobratuta dauzkan funtsak handiagoak dira garai berean egindako inbertsio eta gastuak baino, gutxi gorabehera 1.270 mila euro gehiago eta kopuru horretatik 817 mila euro erakundeek 1999an egindako ekarpenak dira, nahiz eta Fundazioaren jardura 2000. urtean hasi zen, lehenengo ekitaldiaren bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostenak ezartzen duen bezala; txosten hori Fundazioaren eskrituran dago jasota. Kopuru hori Fundazioaren diruzaintzan egon da hurrengo ekitaldietan erabiltzeko eta nabarmen egin du behera 2004. urtean, izan ere, 2004ko abenduaren 31ko egoera-balantzean 452 mila euro dago.

Plan Gidatzailea exekutatzea

Plan Gidatzailea plangintza-tresna bat da. Aldez aurretik egindako azterlan batetik abiatuta, agindu eta arau orokor multzoa jasotzen du, aurrerago esku hartuko den gunea behar bezala garatuko bada, beharrezko diren jarraibideen eta eskakizunen gainean aholkatu eta bideratzeko. Hortaz, ez da zaharberrikuntza-proiektua, baizik eta aurrerago egingo diren jardura eta proiektuak zuzentzeko plana.

2000-2009 epealdian egitekoak ziren jardueren kostua 24.041 mila eurokoa izango zela balioetsi zuen Santa Maria Katedralaren Plan Gidatzaileak, honela banatuta urteka eta kontzeptuka:



	2000	2001	2002	2003	2004tik 2009ra	Guztira
Egitura sendotzea	1.413	1.274	1.097	-	-	3.784
Obra mistoak: egiturazkoak eta formalak	-	-	150	571	986	1.707
Materialak zaharberritzea	42	42	-	541	6.007	6.632
Forma moldatzeko obrak	159	177	397	442	3.507	4.682
Katedrala balioan jartzeko obrak	-	-	-	-	1.232	1.232
Inguru eta etxe-uharteko obrak	300	1.142	992	751	2.819	6.004
GUZTIRA	1.914	2.635	2.636	2.305	14.551	24.041

Planean nola esku hartuko den proposatzen da: lehenik eraikina bera eta bere ingurua zehatz-mehatz aztertuko dira, kontuan izanik Katedrala sistema arkitektoniko eta historiko paregabea dela; horrenbestez, bertan esku hartu baino lehen, Katedralak denboran zehar zein bilakaera izan duen jakin ahal izateko, eraikinaren eduki formalak eta funtzionalak aztertzeko ikerketa arkitektonikoak eta azterlan historikoak egin behar dira.

Esku-hartze metodo horrek baldintzatu egiten du jardueren exekuzioa. Esate baterako, egon diren aurkikuntza arkeologikoengatik Katedralaren lurrazpia erabat induskatu behar izan dute, Plan Gidatzaileak zati bat induskatzea proposatzen bazuen ere. Gainera, Katedrala uste baino hondatuago zegoenez gero, zaharberritzeko obrei ekin eta, aldi berean, bisitaldiek jarraitu ahal izateko besteko ziurtasuna eman behar zitzaionez eraikinaren egiturari, aurreikusi gabe zeuden sendotze-obrak egin behar izan dira.

Esandakoagatik, bada, 2000-2003 epealdirako Plan Gidatzailean aurreikusita zeuden sendotze-obrak atzeratu egin behar izan dira.

Beste alde batetik, balioan jartzeko obrak 2005. urtetik aurrera egitea aurreikusten zuen Plan Gidatzaileak. Egindako aurkikuntza arkeologikoengatik eta ikerketengatik, Katedralako bisitaldiak 2000. urtean hasi dira eta 1999tik 2003ra zabalkunde-lan ugari egin da (ikus IV. 4.2). Bestalde, Proiektuaren kudeaketari erantzuteko, urteko kostuak 75 mila eurokoak izango zirela aurreikusten zen Planean, baina kopuru hori askoz ere handiagoa izan da.

Esandakoagatik, bada, 2003ko abenduaren 31ra arte, Fundazioaren jardueren kostua guztira 9.604 mila eurokoa izan den arren eta, ez, epealdi horretarako, Plan Gidatzailean aurreikusitako 9.490 mila eurokoa, aurreikusita zeuden zaharberrikuntza-obra asko oraindik egin gabe daude. Ezin dugu zehaztu zenbatekoa izango den Planaren jarduera dela-eta aterako den kopurua, izan ere, zaharberrikuntza-obraren exekuzioa ez da garatu ezta kontrolatu ere egin Planean jasota zegoen sailkapenaren arabera, baizik eta esku-hartzeak zonaka egin dituzte, aurreproiektuak jasotzen duen bezala.

Gaur egun, aurreproiektu hori nahiko idatzita dago eta bertan aurreikusten denez, obren kostua nabarmen igoko da. Hala, Fundazioaren Patronatuak 2005eko urriaren 13an izan zuen bileran, 2006-2011 epealdirako aurrekontua eguneratzea onartu zuen, hain zuzen 14.900 mila euroraino. AFari eta Vitoria-Gasteizko Udalarari garai horretako ekarpenak handi zitzaten eskatzea ere erabaki zen, 5.900 eta 5.100 mila euro hurrenez hurren eta Eusko



Jaurlaritzari, berriz, proiektuan parte-hartze handiagoa izateko gonbitea luzatu zitzaion, parte-hartze ekonomiko handiago izateaz gain Fundazioaren gobernu-organotan ere sar zedin.

II.3 FUNDAZIOAREN JARDUEREN LEGEZKOTASUNA

Ekimen publikoko zuzenbide pribatuko fundazioei ezin zaie aplikatu, fiskalizazio-aldi honetan, langileen kontratazioari eta obrak, ondasunak eta zerbitzuak kontratatzeari buruzko araudia, administrazio publikoen jarduera arautzen duena.

Kasu honetan, kontuan izanik Fundazioaren eraketan Arabako Foru Aldundiak eta Vitoria-Gasteizko Udalak hartu dutela parte, Fundazioaren finantziazioa batez ere publikoa dela, Administrazioak bere gobernu-organoen (patronatuaren hiru kideetatik bi) kontrola mantentzen duela eta interes orokorreko beharrei erantzuten diela, Fundazioak errespetatu egin behar ditu berdintasun, meritu eta gaitasun printzipioak langileak kontratatzerakoan, eta publikotasun eta lehiaketa printzipioak, obrak, ondasunak eta zerbitzuak kontratatzerakoan.

Gainera, kontratazio publikoari buruz Europako zuzentarauek “esleitzeko ahalmena” definitzen duten kontzeptuaren barruan dagoenez Fundazioa, kontratuek Europako Erkidegoko mugak gainditzen badituzte, enpresen ahalmenari, publizitateari, lizitazio-prozedurei eta esleipen-moduei buruzko Europako Erkidegoko zuzentarauek agindupean egongo dira kontratuak.

Langileak (ikus IV.5)

Fundazioaren plantilla osatzen duten zazpi pertsonak hautatzeko prozesua aztertzerakoan, honakoa jarri da agerian:

1. Enpresa espezialdua kontratatu da bost pertsona hautatzeko prozesua egin dezan; enpresak deialdiei publizitatea eman, prozesuen bukaeran txostena egin eta hautagaien zerrenda bat proposatu du. Esandako azken txosten horrekin batera, izangaiak aurrez aukeratutako hautagaitzat hartzeko edo ez hartzeko inongo arrazoi edo justifikaziorik agertu ez duenez, ezin izan da egiaztatu kontratazio horietan berdintasun, meritu eta gaitasun printzipioak errespetatu diren ala ez.
2. Langileetako bat kontratatzerakoan, berdintasun, meritu eta gaitasun printzipioak ez dira errespetatu.

Ondasun eta zerbitzuak kontratatzea (ikus IV.6)

Fundazioa eratu zenetik 2003ko abenduaren 31ra arte, 4.770 mila euroko exekuzioa izan duten 26 kontratazioko lagina aztertu da.

1. 429 mila euroko exekuzioa izan duten kontratazio horietako 3tan, Fundazioak ez ditu bete publikotasun eta lehiaketa printzipioak.



2. 1.213 mila euroko exekuzioa izan duten beste 6 kontratu eskaintza-kopuru mugatua eskatuz esleitu dira, hortaz, publikotasun printzipioa ez da bete eta lehiaketa printzipioa mugatu egin da.
3. Zuzendaritza teknikoari laguntzeko lanak, zaharberrikuntza osoaren aurreproiektua idaztea, proiektu partzialak idazteari eta Katedrala zaharberritzeko obren zuzendaritza fakultatiboari dagozkien lan guztiak Plan Gidatzailea idatzi zuen aholkularitza-enpresa berberari esleitu zaizkio, txosten teknikoen arabera, Planaren helburuak bermatuko badira, ezinbesteko baita talde teknikoaren osaketan jarraipena egotea.

Horrek ez du baztertzen, ordea, publikotasun eta lehiaketa printzipioak bete beharra eta printzipio horiek ez dira errespetatu, Plan Gidatzailea idazteko AFAk egindako lehiaketa publikoen lizitazioetan ez baita aurreikusi esleipendun berberari esleitu ahal zitzaizkiola Plana garatzetik sortutako lanak.

2003ko abenduaren 31n, kontratu horien exekuzioa 549 mila eurokoa izan da.



III. AKATSAK ETA GOMENDIOAK

- AFAk eta Vitoria-Gasteizko Udalak 1999an onartu eta euren aurrekontuetan jasota dauzkate Fundazioari bere jarduerak finantzatzeko urtero ordainduko dizkioten kopuruak, lehenak, 2009. urtera arte eta 2008ra arte, bigarrenak.

Diru-laguntza horiek emateko urteko akordioetan, diru-laguntza ordaintzeko eskubidea aitortu diezaioten onuradunak bere gain hartzen dituen betebeharrak materialak eta formalak zenbaterainokoak diren ez da agertzen. Akats berbera dago, 2002ko abenduaren 3ko Diputatuen Kontseiluaren Akordioaren bidez, AFAk emandako 288 mila euroko diru-laguntzan. Dena dela, esan beharra dago Fundazioak justifikatu egin duela jasotako zenbatekoak norako diren, Udalari urteko kontuak auditatuta aurkeztu baitizkio eta AFARI, berriz, egindako gastua justifikatzeko fakturak.

Komeni da erakundeek alde bakoitzaren betebeharrak arautzea: konprometitutako zenbatekoak, ordaintzeko datak, epeak eta diru-laguntzak zertarako erabiliko diren justifikatzeko modua.

- 2000tik 2003ra, urtero 180 mila euroko diru-laguntzak emateko Eusko Jaurlaritzaren 2000ko abenduaren 19ko Kontseiluaren Akordioan eta aurrerago izenpetutako hitzarmenean, ez batean ez bestean, diru-laguntzaren xedea ez dago zehatz-mehatz definituta, diru-laguntza izendunak eta zuzenak tramitatzearen inguruan Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren 6/99 zirkularrak hala eskatzen badu ere. Diru-laguntzak honetarako izango direla baino ez du jartzen: “Egitura sendotzeko eta akabera formal eta arkitektonikoa emateko esku-hartze mistoak; egokitzapen formal eta funtzionalerako esku-hartzeak; monumentua balioan jartzeko esku-hartzeak”. Fundazioak aurkeztu dituen faktura guztiak onartu dituzte diru-laguntza justifikatzeko. 2004ko abenduaren 29an, aurrekoaren baldintza beretsuko hitzarmena sinatu dute 2004tik 2007ra bitarteko aldirako.

Gobernuak diruz lagun ditzakeen jardueren zerrenda balioztatua eduki beharko luke hitzarmenak, eta aurkeztutako justifikazioak zerrenda horretara egokitu beharko lirarteke.

- Katedrala nazio eta nazioarte mailan zabaltzeko programa antolatzeko eta finantzatzeko hitzarmena onartu du Herrilan eta Hirigintzako Foru Diputatuak, AFAREN 90 mila euroko ekarpenarekin, ondasun eta zerbitzuen erosketatzat jo eta hala erregistratu duelako. Hala ere, diru-laguntza zuzena da, berez, 3/1997 Foru Legearen 7. artikulua araberak, Diputatuen Kontseiluak onartu beharko zuena.
- Katedraleko bisitaldi gidatuen zerbitzua kontratatuzko administrazio-baldintzen plegua, 2002ko ekitaldian, 1.012 mila euroan esleitu zen. Bertan ezartzen denez, esleitzeko



irizpide modura, enpresaren kaudimen handiagoa erabiliko da eta kaudimen handiago hori lizitazioan parte hartzerakoan egiaztatuko beharko da eta ezin da esleipenean kontuan izan, esleipen-garaian eskaintza besterik ez delako balioztatu behar.

IV. PARAGRAFO ARGITZAILEAK

IV.1 FUNDAZIOA ERATU AURREKO JARDUERAK

Katedrala monumentu historiko-artistiko aitortu zuten uztailaren 17ko 265/1984 Dekretu bidez eta hortaz, Euskal Kultura Ondarearen 7/1990 Legearen arabera, sailkatutako kultura ondasuna da eta babeseko araubide juridikoaren mende dago. Zehatzago esanda, lege horren arabera, kasu bakoitzean aginpidea duen Administrazioak lagundu egingo die babestutako ondasunen eskubideak dituzten jabe eta titularrei ondasun horiek zaintzen, berreskuratzen eta zabaltzen, bai beharrezkoa den aholkularitza teknikoa bai laguntza ekonomiko eta finantzarioak emanez. Gasteizko Gotzaindegiarena denez Katedrala, Katedralaren zaintza eta babesarekiko AFAREN konpromisoa bi erakunde horien artean sinatutako hainbat hitzarmenetan gauzatu da.

1992. urtean, tenpluaren narriadura ikusita, AFAk ikerketa-talde bat kontratatu zuen eta honek eraikina monitorizatu zuen. Talde horrek ondorioztatu zuen eraikina hondamen partzialean zegoela eta beharrezko izango zela Plan Gidatzaile bat egitea, nahitaezko esku-hartzeak proposatzeko. 1994. urtearen bukaeran Katedrala ixtea erabaki zen.

AFAk Plan Gidatzailearen idazketa kontratatu zuen 1996an (1 eta 2 faseak) eta 1997an (3 eta 4 faseak), eta 1998ko ekitaldian bukatu zen.

Prozesu horretan zehar eta Fundazioa eratu arte, Katedrallean hainbat zaintza-obra egin zen eta Plan Gidatzailearen azterketa eta ikerketa egiteko, laguntzako baliabide osagarriak jarri ziren. Oro har, Gotzaindegia izan zen obra horien sustatzailea eta AFAk diru-laguntzen bidez finantzatu zituen, zenbaitetan zuzenean esku hartu badu ere.

IV.2 ARAUDI APLIKAGARRIA

Fundazioa honako hauek zuzentzen dute: fundazio pribatua denez, bere estatutuek, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legeak- urriaren 18ko 404/1994 Dekretuak garatzen du- eta Fundazioei buruzko 50/2002 Legeak, bere azken xedapena lehenean aurreikusita dagoen bezala.

Beste alde batetik, honako arau hauek aplikatu ahal zaizkie diru-laguntzak ematen dituzten administrazio publikoei:

- 1/1997 Dekretu Legegilea, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauerei buruzko Legeko Testu Bategina onartzen duena.
- 3/1997 Foru Araua, otsailaren 7koa, ALHren Diru-laguntzei eta Transferentziei buruzkoa.



- 53/1992 Foru Araua, abenduaren 18koa, ALHren Ekonomia eta Aurrekontu Erregimenari buruzkoa.
- Vitoria-Gasteizko Udalaren Diru-laguntzak eta Laguntzak arautzeko Ordenantza, 1998ko maiatzaren 22koa.
- 9/1991 Foru Araua, martxoaren 25ekoa, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoa.¹
- 39/1988 Legea, abenduaren 28koa, Toki Ogasunak arautzen dituen.

IV.3 FINANTZIAZIOA

Fiskalizatutako urteetan, Fundazioaren finantziazioa honakoa izan da:

	Diru-sarrerak	%	Kobrantzak	Mila € Kobratzeko 2003-12-31n
Erakunde Publikoetako diru-sarrerak.....	8.651	%77,8	8.448	203
Arabako Foru Aldundia (*)	4.285	%38,5	4.095	190
Vitoria-Gasteizko Udala (*)	3.005	%27,0	3.005	0
Eusko Jaurlaritza	959	%8,6	946	13
Kultura Ministerioa	402	%3,6	402	0
Gotzaindegiaren ekarpena (**)	901	%8,1	901	0
Beste zenbait diru-sarrera	1.567	%14,1	1.556	11
Caja Vital Kutxa Fundazioarekin lankidetzarako hitzarmena	1.105	%9,9	1.105	0
Beste zenbait	462	%4,2	451	11
GUZTIRA	11.119	%100,0	10.905	214

(*) 1999. urteko ekarpenean, fundazioaren zuzkidura modura erakunde bakoitzak emandako 12 mila euro sartzen dira.

(**) 1999. urteko ekarpenean, fundazioaren zuzkidura modura emandako 6 mila euro sartzen dira.

Finantziazioaren %77,8 hainbat kontzepturengatik erakunde publikoek egindako ekarpenei dagokie, Caja Vital Kutxa Fundazioarekin lankidetzarako egindako hitzarmenekoak dira %9,9 eta gainerako %8,1 Katedralaren jabea eta Fundazioaren bazkide sortzailea den Gasteizko Elizbarrutiaren Gotzaindegiak egindako ekarpenak dira.

¹ 2002ko apirilean baliorik gabe geratu da arau hau, nahiz eta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen 29/1988 Legearen 73. artikulua arabera, xedapen orokor baten deuseztasunak ez dien eragiten deuseztatu aurretik emandako administrazio-egintza irmoei.



IV.3.1 ARABAKO FORU ALDUNDIAREN EKARPENAK

1999. urtean Fundazioa eratu zen momentuan, 12 mila euroko fundazio-zuzkidura osorik ordaindu zuen AFAk eta, kopuru horretaz gain, honako ekarpenak ere egin dizkio Fundazioari:

							Mila €
Kontzeptua	Emakida	1999	2000	2001	2002	2003	GUZTIRA
KAPITALEKO DIRU-LAGUNTZAK	-	48	849	781	1.069	962	3.709
Santa Maria Katedrala sendotu, zaharberritu eta birgaitzeko lanak (*)	(**)	48	781	781	781	782	3.173
Plan Gidatzailearen exekuzioak eragindako herritarrei euren etxeak utziarazi eta beste nonbait ostatu ematea	00/12/4 FA	-	68	-	-	-	68
Katedrala zaharberritzeko obren finantziarioa. EGEF funtsak (*)	02/12/3 DKU	-	-	-	288	-	288
Katedralaren inguruko sarbideak argiztatzeko eta egokitzeko hitzarmena (*)	03/12/22 FD	-	-	-	-	180	180
DIRU-LAGUNTZA ARRUNTAK	-	-	153	69	46	22	290
Plan Gidatzailea editatzea, argitaratzea eta zabaltzea (*)	00/11/21 DKU	-	153	-	-	-	153
Kultura-ondarearen kudeaketari buruzko kongresua finantzatzea	01/6/18 FA	-	-	42	-	-	42
Lehiaketa bidez egin beharrekoak	-	-	-	27	46	22	95
ALHren sustapen turistikoko jarduerak egiteko laguntza-programa							
2001. urterako jarduera-plana	01/7/20FA -	-	25	-	-	25	
Katedralera egindako ibilaldi bertualak	02/9/17 FA	-	-	-	39	-	39
Zabalkunde turistikorako proiektua	03/7/28 FA	-	-	-	-	20	20
Irabazi asmorik gabeko erakundeetan prestatzeko laguntza-programa							
Zureriko ikastaro praktikoa	01/9/4 FA	-	-	2	-	-	2
Especializazioko hiru ikastaro praktikoa	02/6/3 FA	-	-	-	7	-	7
Kare-estaldurako ikastaro praktikoa	03/9/9 FA	-	-	-	-	2	2
2. KAPITULUAN ERREGISTRATUTAKO HITZARMENAK .-	-	-	126	-	123	249	
Argazki-erakusketa ibiltariko hitzarmena	01/12/31 FA	-	-	36	-	-	36
Literatura-jardunaldietako hitzarmena:							
"Solosaldiak Katedralean"	01/12/31 FA	-	-	90	-	-	90
"Viejas historias de la Catedral Vieja" liburuaren ekarpena	03/3/28 FA	-	-	-	-	15	15
Zaharberritzeko prestakuntza-jardueretarako hitzarmena	03/7/1 FA	-	-	-	-	18	18
Zaharberrikuntza-programa zabaltzeko hitzarmena (*)	03/7/1 FA	-	-	-	-	90	90
LIBURUAK ETA MATERIALA EMATEA	-	-	-	4	12	9	25
GUZTIRA	-	48	1.002	980	1.127	1.116	4.273

(*) HKEEK aztertutako diru-laguntzak

(**) 4/99 Foru Arauak konpromisozko kreditua onartu du Fundazioarentzat 2009. urtera arte. Urtero, Diputatuen Kontseiluak urtesari bakoitzaren zenbatekoa xedapen-fasean jartzea erabakitzen du.



IV.3.1.1 Sendotze, zaharberritze eta birgaitze lanetarako kapitaleko diru-laguntza

1999ko ekitaldiko ALHren aurrekontuan 7.873 mila euroko konpromisozko kreditua sortzea erabaki du 4/1999 Foru Arauak, Santa Maria Katedralaren sendotze, zaharberritze eta birgaitze lanen zati bat finantzatzeko; Plan Gidatzailearen estimazioen arabera, 2009. urterainoko exekuzio-epea izango du. 2000tik 2009ra bitarteko ekitaldietan, 781,3 mila euroko 10 urtesaritan banatuta dago kreditu hori eta 1999ko ekitaldirako 60 mila euroko zenbatekoa izango du. 1999. urteko kreditutik 12 mila euro fundazioaren zuzkidura ordaintzeko erabili dira.

IV.3.1.2 Katedrala zaharberritzeko obren finantziazioa. EGEF funtsak

Santa Maria Katedralaren zaharberrikuntza Programatzeko Dokumentu Bakarrean (PDB) sartu da, 2000-2006 epealdian, Euskal Herriko 2. xedeko eskualdeetan, Erkidegoaren esku-hartze estrukturalerako. Europako Batzordeak 2001eko martxoaren 7an erabaki zuen PDB; esku-hartzearen zenbatekoa guztira 1.797 mila eurokoa izango zen eta EGEFen 898 mila euroko laguntza (%50) edukiko zuen. 2004. urtean zehar, jardueren jarraipena egiteko Batzordeak, programaren 2000-2003 epealdiko batez besteko ebaluazioa egin zuen. Katedralean egindako esku-hartzea eraginkorra iritzita, 2004ko abuztuaren 31an, Europako Batzordearen erabaki batek 464 mila euro gehiago ematea erabaki zuen.

EGEFen laguntzak AFak jaso ditu; 2003ko abenduaren 31ra arte, 1.707 mila euroko gastu publikoak egiaztatu dizkio EGEFi eta 853 mila euro dauzka kobratuta. 2002. urtean, Fundazioak hala eskatuta, EGEFek Fundazioari igorritako zenbatekotik 288 mila euro zaharberrikuntza-obretarako esleitzea baimentzen du Diputatuen Kontseiluak; Fundazioak esleipen horren onuradun izateagatik bere gain hartu beharreko betebeharrak, ordea, akordio horretan ez daude araututa.

IV.3.1.3 Sustapen Ministerioaren diru-laguntzak, %1 kulturala

Sustapen Ministerioak obra publikoan egindako inbertsio osoan egiten duen ekarpenarekin sortzen da %1 kulturalaren funtsa eta Ondare Historikoa zaintzeko eta aberasteko lanak diruz laguntzeko izaten da.

Espainiako Ondare Historikoan, %1 kulturalaren bidez batera jarduteko, Sustapen Ministerioaren eta Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren arteko Lankidetzarako Akordioaren Batzorde Mistoan, Fundazioaren izenean jardun du AFak. 1999ko urriaren 26an, Batzorde horrek Santa Maria Katedrala Katedralen Planaren barruan sartzearabaki zuen eta AFari proiektu zehatzak aurkezteko eskatu zion. Proiektu horien obra-aurrekontuaren %100 finantzatuko da eta inbertsioa, %1 kulturalaren kontura, guztira 8.414 mila eurokoa izan daiteke. 2003ko abenduaren 31n, kontzeptu horregatik inongo diru-sarrerarik jaso gabe dago Fundazioa.

2003ko abenduaren 26an, AFak eta Sustapen Ministerioak lankidetzarako hitzarmen bat sinatu dute, Elizatariko Polikromiak Zaharberritzeko Proiektuaren obrak egiteko 771 mila



euroko aurrekontu izanik, 130 mila euro ordain ditzan Ministerioak, 2003ko aurrekontu-ekitaldiaren kontura. Hitzarmen horren arabera, inbertsioaren justifikazioa 2004ko ekitaldian egin da, Fundazioak- obrak kontratatzeako organoak- tramitatutako eta onartutako obra-egiaztagirien bitartez; guztira 395 mila euro izan dira eta horietatik 211 mila euro 2003ko abenduaren 31rako exekutatuta zeuden. 2004ko uztailean, jasotako 130 mila euroko diru-laguntza Fundazioari esleitzea erabaki du Diputatuen Kontseiluak.

IV.3.2 VITORIA-GASTEIZKO UDALAREN EKARPENAK

1999ko maiatzaren 24an, Udalaren Osoko Bilkurak fundazio bat eratzea erabaki du. Fundazio horren helburua izango da Katedrala eta bere hiri-ingurunea oso-osorik sendotzea, zaharberitzea eta birgaitzea, horretarako egingo den Plan Gidatzailearen zuzentauarekin bat etorrira, eta fundazioaren estatutuak ere onartu dira.

Gainera, 1999tik 2008ra bitarteko ekitaldietarako (biak barne), urtero 601 mila euroko kopurua izango duen konpromisozko kreditua baimentzen du; ekarpena guztira 6.010 mila eurokoa izango da.

1999ko maiatzaren 25ean emandako fundazioaren eskriturak 30 mila euroko ondare-ekarpena ezartzen du. Horietatik 12 mila euro Udalari dagozkio eta 1999ko ekitaldiko urtesariaren kontura ordaintzekoak dira.

IV.3.3 EUSKO JAURLARITZAREN EKARPENAK

Hona hemen Eusko Jaurlaritzak Fundazioari emandako diru-laguntzak:

		Mila €					
Kontzeptua	Emakida	1999	2000	2001	2002	2003	Guztira
KAPITALEKO DIRU-LAGUNTZAK		180	180	180	180	181	901
Tenplua Zaharberitzeko Plan Gidatzailea	GKA						
abian jarri eta exekutatzea	99/12/28	180	-	-	-	-	180
Plan Gidatzailea exekutatzea (zabalkundera eta	GKA						
balioan jartzera bideratutako esku-hartzeak) (*)	00/12/19	-	180	180	180	181	721
DIRU-LAGUNTZA ARRUNTAK							
(lehiaketa bidez egin beharrekoak)	-	-	-	27	18	13	58
EAEko Kultura Ondarearen zabalkundearen							
jarduerak garatzea (00/3/22 Agindua)							
“Kultura Ondarearen kudeaketa ekonomian”							
Nazioarteko Kongresua	01/09/25 Erab.	-	-	18	-	-	18
Turismoari buruzko ikastaroak, jardunaldiak eta mintegiak							
egiteko laguntzak (00/6/30 Agindua)							
Ondarearen kudeaketari buruzko Nazioarteko Kongresua	01/08/06 Erab.	-	-	9	-	-	9
2002 Turismoko azoketara joatea eta ibilbide birtualak	02/07/22 Erab.	-	-	-	18	-	18
Turismoa sustatzeko eta merkaturatzeko laguntzak (03/4/16 Agindua)							
Turismoa sustatzeko Plan orokorra	03/11/26 Erab.	-	-	-	-	13	13
GUZTIRA		180	180	207	198	194	959

(*) HKEEK aztertutako diru-laguntza.



2000ko abenduaren 19ko Gobernu Kontseiluaren Akordio bidez, 2000-2003 ekitaldietan zehar Plan Gidatzailea exekutatzeko emandako 721 mila euroko diru-laguntza “zabalkundea eta balioan jartzea” izeneko jardueretara bideratu da, zehatzago esanda, arkeologia-guneetan arkeologia-lanak eta gune horiek museo bihurtzeko lanak egiteko erabili da, bisitaldiak egiteko moduan uztearren.

IV.3.4 BESTE ZENBAIT FINANTZIAZIO

Euskal administrazio publikoetatik jasotako diru-sarrerez gain, Fundazioak bere jardunean jaso dituen beste zenbait diru-sarrera hona hemen zehaztuta:

	Mila €
Kultura Ministerioa	402
Gasteizko Gotzaindegiaren ekarpena	901
Beste zenbait diru-sarrera	1.567
Caja Vital Kutxa Fundazioarekin lankidetzarako hitzarmena	1.105
Ikastaroetako kuotak, bisitarien sarrerek eta Fundatzaileen Zirkulua	213
Inbertsio finantzarioak	152
Beste batzuk	97
GUZTIRA	2.870

Kultura Ministerioak 265 mila euroko diru-laguntza eman du gidatutako bisitaldien programetarako, 56 mila euro “Katedralarekin solasean” literatura-jardunaldiak antolatzeke eta 81 mila euro kongresu bat, zaharberritzeari buruzko bienal bat eta argazki-erakusketa ibiltari bat egiteko.

Fundazioaren xedea lortzeko, 180 mila euroko ekarpena egiten du urtero Gotzaindegiak, 1999ko maiatzaren 20an bere gain hartutako konpromisoari jarraituta, 1999tik 2008ra (biak barne) aldizkako ekarpenak eginez.

2000ko uztailaren 14an, Caja Vital Kutxa Fundazioarekin lankidetzarako hitzarmena sinatu zuen Fundazioak, Fundazioaren kultur jarduera eta zabalkunde planean parte har zezan Caja Vital Kutxa Fundazioak. Aztertutako denboraldian zehar, urtero izenpetu dira hitzarmenaren zenbait eranskin. Eranskin horietan, Katedralera bisitaldi gidatuak egiteko programen finantziazioan, Caja Vital Kutxak egingo duen ekarpena ezarri da, 2000. urterako 202 mila euro eta 2001etik 2003ra bitarteko ekitaldietarako 301 mila euro, hain zuzen.

2000. urtean zehar obrak bisitatzea doakoa izan zen. 2001. urtean bisitaldiak 1,8 euro balio zuen eta 2002. eta 2003. urteetan, berriz, 2 euro. Hiru urte horietan zehar, bisitaldi merkeagoak edo doakoak egon dira.



Fundatzaileen Zirkulua Fundazioak kudeatutako foroa da. Partikularrek eta enpresek urtero 30 edo 60 euroko ekarpenak egin eta horren truke zenbait abantaila dute (doako bisitaldi gidatuetara joateko aukera, eurekin joandako laguntzako deskontuak etab.). 2001. urtean eratu zen eta 2003ko abenduaren 31n, 369 bazkide ditu Fundatzaileen Zirkuluak.

Kontu korrontean gordailututako funtsen interesak biltzen dituzte sarrera finantzarioek; EAEko erakunde publikoei aplikatu zaien tipoarekin ordaindu dira sarrera finantzario horiek eta 2003ko 2. hiruhileko %1,93aren eta 2000ko 2. hiruhileko %4,32aren artean ibili da tipoa.

IV.4 FUNDAZIOAREN JARDUERAK

IV.4.1 IBILGETUAREN GEHIKUNTZA

2003ko abenduaren 31ra arte, zaharberritzeko eta birgaitzeko obren exekuzioa honakoa izan da, jarduera-eremuka:

	Mila €				
	2000	2001	2002	2003	GUZTIRA
Aurreproiektua	44	65	-	-	109
Zaharberrikuntza-obrak.....	345	590	640	843	2.418
Arkeologia.....	349	356	349	223	1.277
Ondasun higigarri eta higiezinen zaharberritze artistikoa.....	70	73	163	329	635
Higiezinak erostea.....	319	225	85	-	629
GUZTIRA	1.127	1.309	1.237	1.395	5.068

Oharra: Lehen aipatutako obrak honela kontabilizatuta daude: "Zaharberritzeko eta birgaitzeko obrak", 4.403 mila euro; "Aiztogile kalean eraikinak erostea", 612 mila euro; "Beste ibilgetu bat" eta gastuen kontuan, 53 mila euro.

Birgaiketa-obrak

	Mila €				
	2000	2001	2002	2003	GUZTIRA
Zaharberritu aurreko premiazko obra osagarriak	175	47	48	30	300
Habeartekoetako behin-behineko eskora-egiturak eta errefortzuak.....	-	94	333	232	659
Habeartekoen zutabeak sendotzea	-	-	-	266	266
Dorrea eta Elizataria erabat zaharberritzea	-	56	121	68	245
Alboko habeartek zaharberritzea.....	-	-	-	125	125
Zaharberrikuntzako beste zenbait gastu (monitoriza, zaintza, aholkularitza).....	150	191	85	81	507
Fundazioaren jarduerekin lotutako obrak	20	202	53	41	316
BIRGAIKETA-OBRAK	345	590	640	843	2.418

Zaharberritu aurreko premiazko obra osagarriak Fundazioa eratu baino lehen Gotzaindegiak hasitako obren ondoren egindakoak dira eta horien artean aipatzeko da bisitaldiak egin ahal izateko Aiztogile kaleko 95 zenbakiko lokalean egindako moldaketa.

Habeartekoetan eta gurutzaduran behin-behineko eskora-egiturak eta errefortzuak jartzeko proiektuaren helburua da eraikinaren egituraren segurtasuna areagotzea, hartara,



lurrazpiaren indusketa arkeologikoa egin ondoren, agerian utzitako zimenduak sendotzeko eta lan horiek egiten dituzten bitartean, gainera, eraikina bisitatu ahal izateko.

2003ko abenduaren 31n, indusketa arkeologikoan aurkitu ziren habeartekoetako zutabeen zimenduak konpontzeari eta horien egitura sendotzeari ekin zitzaion, baita horietako bi eskoratzeko eskora-egiturak jartzeari ere.

Dorrea eta Elizatariaren zaharberrikuntza osoari eta alboko habearteak birgaitzeari dagokienez, berriz, 2003ko abenduaren 31n exekutatuak zenbatekoa batez ere proiektuak idazteko gastuena da.

Fundazioaren jarduerekin lotutako obren barruan, aipatzekoak dira bisitarien abegi-zentroa berritzeko obrak. Buruileria plazan dago zentro hori, antzinako bolatokiaren eta bere eranskinetan, hain zuzen. Etxebizitzarako eta Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintegia, SA da jabea (%100 Gasteizko Udalarena) eta 2001eko apirilaren 3an izenpetutako Hitzarmen baten bidez, bere erabilera Fundazioari lagata dago 2009ko urrira arte edo, hala badagokio, bisitaldi gidatuen programak amaitu arte. Fundazioa arduratuko da leku hori egokitu eta ondoren mantentzeaz eta baita obren bisitaldi gidatuak egiteko urteko programak egiteaz ere.

Arkeologia

	2000	2001	2002	2003	Mila € GUZTIRA
Euskal Herriko Unibertsitatearekin hitzarmena	224	282	290	196	992
Santa Maria plazaren aldi baterako estaldura.....	-	-	-	21	21
Material suntsigarria.....	2	1	1	3	7
Arkeologoentzako laguntzak (aldamioak, igeltserotza etab).....	123	73	58	3	257
ARKEOLOGIA	349	356	349	223	1.277

Katedralaren lurrazpian dauden aurretiko eraikinen eta hilobien hondarrei esker, katedrala kokatuta dagoen inguruko hiri-garapena nolakoa izan den azter daiteke; hondar horien aurkikuntza erabakiorra izan da 2000tik 2003ra bitartean burutu diren esku-hartze arkeologikoetan.

Esate baterako, Santa Maria plazaren alde bat altxatu egin eta, erautsi aurretik, Benefiziodunen Sakristiaren ikerketa arkeologikoarekin hasi dira. Gainera, Katedralaren lurrazpi osoa poliki-poliki induskatzen ari dira.

Ondasun higigarri eta higiezin zaharberrikuntza artistikoa

Kontzeptu hori dela-eta, 2003ko abenduaren 31n exekutatuak kostuaren %80 Katedralaren Elizatariko polikromien zaharberrikuntzari dagokio.



Higiezinak erostea

Plan Gidatzaileak aurreikusita zeukan bai Katedralaren ingurua eta etxe-uhartea zaharberritzea eta baita ondorengo jarduera hauek eragindako gastua ere: higiezinak erosi, zati bat hustu eta barrualdea berritzea, etxe-uhartean eraikitako bolumena bakandu eta bertan jartzeko Katedralaren kabildorako eta Katedralaren museorako zerbitzu-bulegoak, Santiagoko kaperarako parroki-bulegoak eta etxebizitzak.

Eraikin horiek Aiztogile kalean daude, kale horretako zenbaki bakoitietan (87. zenbakitik 103. zenbakira bitartean). Horietako batzuk Gotzaindegiarenak ziren eta Fundazioari laga zizkion Katedralarekin batera; beste eraikin batzuk partikularrei erosi zitzaizkien, beste zenbait erosteko bidean daude oraindik edo Vitoria-Gasteizko Udalak desjabetuko ditu, jabeekin ez baita inongo akordiorik lortu.

Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintegia da jabeekin tratua egiten duena. Akordioen batera iritsitakoan, Fundazioari jakinarazten dio zein salerosketa gauzatu behar duen eskriturretan, zein prezio ordaindu behar duen eta zein gasturi egin behar dion aurre. Horrezaz gain, jabeek beste etxebizitza batzuetan ematen die ostatu.

IV.4.2 FUNDAZIOAREN BESTE ZENBAIT JARDUERA

Fundazioak Katedralaren berreskurapen arkitektonikoa kudeatzeaz gain, balioan jartzeko jarduera kulturalak eta turistikoak ere egiten ditu (bisitaldi gidatuak, kongresuak, mintegiak etab.), Fundazioaren xedeak eta Plan Gidatzailearen helburuak betez.

Kulturaren eta turismoaren aldetik, aipatzekoa da Katedralako Obren Bisitaldi Gidatuaren Programa. Aztertu ditugun ekitaldietan hau izan da bisitari-kopurua:

Ekitaldia	Bisitari-kopurua
2000.....	24.007
2001.....	28.573
2002.....	49.688
2003.....	64.342
Guztira	166.610

Fundazioak kultur jarduerak ere egiten ditu: kongresuak, lanbide-ikastaroak, mintegiak, argitalpenak, erakusketak etab. Kultur jarduera horien artean aipatzeko modukoa da “Katedralarekin topaketak” zikloa; bertan, izen handiko idazleen hitzaldiak, kontakizun-lehiaketak, pintura-lehiaketak... egoten dira.

Babesletzan Fundazioak aurkeztutako oroit-txostenen arabera, egin diren jarduera nagusien kostua honakoa izan da:



	Mila €
Plan Gidatzailea editatzea.....	143
Bisitaldi gidatuen programa.....	1.720
“Katedralarekin topaketak”.....	158
Vari Caramésen argazki-erakusketa.....	13
Ondareare. kudeaketari buruzko Kongresua.....	135
Zaharberrikuntzari buruzko bienala.....	45
Triforiotik berriak.....	28
Hiriko Museo Historikoa.....	24
Kareei, gangei eta arotzeriari buruzko ikastaroak.....	80
GUZTIRA	2.346

IV.5 LANGILEAK

2003ko abenduaren 31n, lan-kontratu mugagabea duten sei lagunek eta, 2000ko martxoaren 7an, Fundazioaren Patronatuak izendatutako Zuzendari Kudeatzaileak osatzen dute Fundazioaren plantilla. 2000ko ekitaldian bost pertsona kontratatu zituzten eta 2001ean pertsona bakarra.

Fundazioaren plantillako langile horiez gain, Estatutuetako 25. artikuluari jarraiki, Zuzendari Teknikoaren esku laga ditu Patronatuak obra eta lanak maila tekniko-profesionalean zuzentzeko, jarraipena egiteko eta kontrolatzeko gaitasunak. Estatutuen arabera, kargu hori ez da inolaz ere ordainduko eta AFaren Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren Buruari dagokio.

2003ko abenduaren 31n, plantillako langileen lan-kategoria honakoa zen:

Kategoria	Plantilla
Zuzendari Kudeatzailea.....	1
Administrazio-buru/Idazkaria.....	1
Zuzendaritza Idazkaria.....	1
Komunikazio Arduraduna.....	1
Teknikariak (*).....	3
GUZTIRA	7

(*) Teknikarietako batek lanaldi partziala du (%62,5)

Langileen kostua urteka honakoa izan da:

	Mila €	
Ekitaldia	Plantilla 12-31n	Kostua
2000.....	6	139
2001.....	7	268
2002.....	7	308
2003.....	7	345
GUZTIRA		1.060



2000. urtean kontratatu ziren pertsonetatik lauren hautaketa eta 2001ean kontratatutakoarena langileak hautatzen espezializatutako enpresa batek egin zuen. 2000ko prozesurako AFak kontratatu zuen enpresa hori, Fundazioak Zuzendari Kudeatzailea eduki baino lehenago hasita baitzeuden tramiteak; ez digute adierazi, ordea, zein prozesu jarraitu zuten aukeraketa horretarako. Fundazioak 2001ean egindako kontratazioan, aurreko ekitaldiko enpresa bera erabili zen.

Kasu guztietan prozedura bera jarraitu da: hautaketa-enpresak prentsan argitaratu du enplegu-eskaintza eta, beharrezkoak iruditu zaizkion frogak egin ondoren, jasotako eskabide guztien artean lanpostu bakoitzeko 3 pertsona aurrez aukeratu ditu eta aurrez aukeratutako pertsonak egindako frogei buruzko emaitzen txostena bidali du Fundaziora, hiru hautagaien sailkapen bat proposatuz. Zuzendari Kudeatzaileak, Patronatuak bere esku laga dituen eskumenak oinarritzat hartuz, bidalitako dokumentazioa erreferentzia modura hartu eta proposatutako hautagaiei elkarrizketa egin ondoren, behin betiko hautaketa egin du. Enpresak aurrez aukeratu ez dituen eskabideen berri ez dagoenez, ezin da egiaztatu kontratazio horietan berdintasun, meritu eta gaitasun printzipioak errespetatu diren ala ez.

2000. urtean pertsona bat kontratatu zen, aldez aurretik publizitaterik egin gabe eta, horretarako, Fundazioaren Zuzendaritza Teknikoaren Txosten bat hartu zen oinarritzat. Txosten horrek zioenez, bete beharreko lanposturako ezagutza espezifiko jakin batzuk eduki behar ziren, pertsona horrek kurrikuluak ezarritako ezaugarriak bete egiten omen zituen eta Katedralaren Plan Gidatzailearen idazketan parte hartze handia izan omen zuen. Dena dela, lanpostu hori betetzeko hautaketa-prozesu irekia egin behar zuen Fundazioak, beharrezko ezagutza teknikoak zituzten pertsona guztiek aurkezteko aukera izan zezaten.

IV.6 KONTRATAZIOA

Fundazioak, eratu zenetik 2003ko abenduaren 31ra arte, esleitu dituen honako kontratu hauek aztertu dira:



KONTRATUAK

Xedea	Kontratu mota (*)	Kontratuaren data	Esleipenaren zenbatekoa (BEZ barne)	Exekuzioa 03/12/31ra arte	Akatsak	
Zaharberitze eta birgaitze obrak egitea besteren etxean						
EHUrekin 00/4/13ko lankidetzarako egindako hitzarmenetik eratorritako arkeologia eta fotogrametriari buruzko 7 proiektu		LT	Zenbait (00/5/31tik 03/3/25era arte)	1.014	992	
Zuzendarit. teknikoarentzako lagun. teknikoak: arkitektoak	LT	2000/07/28	300,51 €	34	C	
			(obra bisitatzea)			
Zaharberrikuntza osoaren Aurreproiektua idaztea.....	LT	2000/09/15	218	109	C	
Habeartekoetan eta gurutzaduran behin-behin. eskora-egiturak eta erreformatu. jartzeko proiektu idaztea eta obren zuzendaritza	LT	2001/03/15	22	25	C	
Dorrea eta ekialdeko Elizataria erabat zaharberritzeko Proiektua idaztea eta obren zuzendaritza	LT	2001/04/15	144	230	C	
Zutabeen zimenduak sendotzeko Proiektua idaztea.....						
eta obren zuzendaritza	LT	2003/01/10	25	20	C	
Plazaren aldi baterako estalduraren Proiektua idaztea.....	LT	2003/05/15	26	18	C	
Ekialdeko habeartekoak erabat zaharberritzeko.....						
proiektua idaztea.....	LT	2003/10/15	752	113	C	
Zuzendaritza teknikoarentzako aholkularitza-zerbitzua eta						
laguntza teknikoak: birgaitzea.....	LT	2001/03/01	(1.251,10 €/hila)	47		
Eskulturen eta portaletako elementu polikromoak						
berreskurapena baino lehenagoko azterlanak.....	LT	2002/07/15	109	109		
Santa Maria Katedralaren Elizatariko polikromiak						
zaharberritzea	LT	2003/04/11	771	265		
Zaharberritu aurreko premiazko obra osagarriak.....	AO					
